



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

VI. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2025eko maiatzaren 28, 29 eta 30a
Bilbo, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 4.0

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

**Zaugarritasunaren epizentrotik
idazten. Osasun mentala Alaine
Agirre Garmendiaren
eleberrigintzan**

Ane Iturriarte Basterretxea

125-132 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.vi.01.15>

ANTOLATZAILEA



BABESLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



LAGUNTZAILEAK



Zaugarritasunaren epizentrotik idazten. Osasun mentala Alaine Agirre Garmendiaren eleberrigintzan

Ane Iturriarte Basterretxea

Deustuko Unibertsitatea

aneiturriartebasterretxea@gmail.com

Laburpena

Alaine Agirre Garmendiaren eleberrigintzak badu gai zentral eta mardula: osasun mentala. Hain zuzen ere, autoreak bere eleberrietan eritasun mentalaren dimentsio guztiak lantzen ditu: gaixotasunaren eragin pertsonal, sozial eta familiarak ez ezik, rol dibulгатiboa bide, min emozionalaren kudeaketa, gaixotasun prozesuak edota gizartearen begietara tankera honetako eritasunak pairatzen dituzten pertsonen sor dezaketen deserosotasuna eta estigma ere baditu mintzagai. Hala eta guztiz ere, aipatutako ardatzak ez dira autorearekiko modu alienatuan aurkezten: sarri ez da alde nabarmenik Agirrek bizitakoaren eta literaturan islatutakoaren artean. Diskurtsoaren analisia eta autoreak emandako askotariko elkarrizketak uztartuz, artikulua autoreak osasun mentalari buruz sortzen duen diskurtsoa aztertzea du helburu.

Hitz gakoak: Alaine Agirre Garmendia, euskal literatura, osasun mentala.

Abstract

Alaine Agirre Garmendia's novels have a central and complex topic: mental health. The author covers all the dimensions of mental illness in her novels; not only does she address the personal, social, and family effects such types of disease usually bring, but through a disseminating role, she also talks about the management of emotional pain, the disease process or the discomfort and stigma that people suffering from this type of illness might cause in the eyes of society. Even so, the aforementioned axes are not presented alienated from the author: there is often no significant difference between what Agirre experienced and what is reflected in her novelistic literature. By combining discourse analysis and various interviews given by the author, the article aims to analyze the discourse created by the author about mental health.

Keywords: Alaine Agirre Garmendia, Basque literature, mental health.

1. Sarrera eta motibazioa

Historikoki, tradizioan oinarritutako hegemonia heteropatriarkalaren menpeko literatura izan da euskal literatura (Alvarez Uribe, 2005; Borda, 2013; Gabilondo, 2016). Eider Rodriguez (2019) euskal idazleak euskal tradizio literarioan gizonek izan duten nagusitasuna berresten du, biologia aitzakiatzat hartuta testuinguru literarioan ez baitzegoen ugalketarako baizik sortutako horientzat lekurik, ez autorearen rolari dagokionez eta ezta pertsonaiei eta haiei buruz sortutako diskurtsoari dagokienez ere.

XX. mendeko laurogeita hamargarreneko hamarkadan emakumeek ordura arte izandako rol, betebeharrak eta gorputzak kolokan jarri zituzten, baita literaturan ere, eta lehen pertsonaia ez normatibo eta disidenteak agertzen hasi ziren (Gabilondo, 2016); alegia, amaren roletik haratago joan eta emakumezko lesbiana, bisexual, transexual edo etorkinak, besteak beste, irudikatzen hasi ziren. Hegats aldizkariaren 52. zenbakian Laura Mintegik (2014) adierazi bezala “(...), letren munduan zegokigun lekua aldarrikatzen genuen, gizonezkoen pare, baina gure estetika literarioa defenditzen genuen, gure kosmogonia, gure idiosinkrasia, nire lexikoa, gure kadentzia, beste edozeinena bezainbestekoa” (14-15. or.). Halaber, emakumeen errealitate, esperientzia eta ikuspegiak erdigunean jarri zituzten emakumezko idazleak. Ondorioz, esan genezake emakumeek idatzitako euskal literatura azken berrogeita hamar urteetan hazi dela (Alvarez Uribe, 2005).

Emakumeek sortutako paisaia literario hartatik elikatu izan balitz legez, testuinguru horretara jaio zen Alaine Agirre Garmendia euskal idazlea, Bermeon 1990ean sortua. Agirrek gazte-gaztetatik izan du idazteko grina eta duela hogeitaz inguru hasitako ibilbide literarioak bere fruituak eman ditu, egun euskal literaturak duen prosa eta poesia idazlerik emankorrenetarikoa baita, edozein delarik ere publikoa, haur, gazte eta heldu literatura idatzi baitu urte luzez. Agirreren eleberrigintza lau obrak osatzen dute: *Odol mamituak* (2014), *X hil da* (2015), *Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama* (2017), eta *Karena* (2021). Eleberr horiengatik askotariko sariak jaso ditu: Zazpi Kale saria *Odol mamituak* eleberrigatik; Zilarrezko Euskadi saria *X hil da* lanagatik; Joseba Jaka saria *Bi aldiz erditu zinen nitaz, amagatik*; eta Irun Hiria Kutxa literatura saria *Karenagatik*. Aitortza, sarien bidez ez ezik, itzulpenen bidez ere jaso du. Izan ere, haren obrak hainbat hizkuntzatarara itzuli dira.

Harritzekoa da, ordea, Alaine Agirre Garmendiak artikulua eta testu akademikoetan duen presentzia urria; nahiz eta kantitatez zein modalitatez asko publikatu izan duen, eta izen handiko sari asko jaso dituen autorea izan, ezer gutxi publikatu da hari buruz maila akademikoan. Hori da, hain justu, artikulua honen abiapuntua, sakon ikertzeke dagoen Alaine Agirre Garmendiak sortzen duen literatura gogor, gordin, deseroso eta, agian, zatarrari akademian eskaini zaion atentzio eskasa.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Mari Jose Olaziregiren arabera (2012), azken hiru hamarkadetako euskal eleberririk postmodernitatearen ezaugarri nagusi bat hartzen du: istorio oro jada kontatua izan bada ere, horiek berridazteko eta birkontatzeko beharra erakusten du. Hori da Agirrek egiten duena: osasun mental eta emozionalari, amatasunari eta sexuari buruz diskurtso, ikuspegi eta posizio berriak ekartzen dizkigu. Istorio edo diskurtso bat bere betaurrekoetatik, bere posiziotik, idazten duen emakume eta idazlea da Alaine Agirre Garmendia.

Emakume idazleek berezko dute gizonezko idazleek emakumeei buruz sortutako irudiak erasotzea eta berrikustea, suntsitzea eta berreraikitzea (Moi, 1988). Hori da Agirrek duen idazteko era: emakumeei ordura arte egotzitako ikusezintasun kronifikatua, mistifikazioa eta histerismoa eraistea. Agirreren pertsonaiek erakusten dute emakumeok gaixotasun mentalak paira ditzakegula, baina horiek baino gehiago garela. Berdin amatasunari dagokionez: amatasun asmoak arrazoi biologiko zein sozialengatik zapuztu dakizkiguke, baina badira haurrak besoetan inoiz izango ez dituzten amak ere. Sexua ere berridazten du: emakumeok sexuaz eta plazerez blaitu gaitezke, baina etengabe birpentsa genitzake harreman eta praktikak. Alegia, Agirrek gizarteak eta tradizioak emakumeez ezarritako iruditeria birpentsatzen, berridazten eta errealitate konplexuak azaleratzen ditu.

Agirreren eleberrigintzari dagokionez bada sortzen duen literaturaren bereizgarri bat: eleberritako istorioek autorearen bizipen eta esperientziekin daukaten lerrokatzea, hain zuzen ere. *Autofikzioaren* kontzeptuak beste emakumezko euskal autore batzuen obrak, Eider Rodriguezen *Eraikuntzarako materiala* edo Miren Agur Meaberen *Kristalezko begi bat* kasu, interpelatu baditu ere, Alaine Agirrek ez du argi bere literatura autofikzioan kokatzen den ala ez (Goiena Komunikazio Taldea, 2023). Idazlearen arabera, helduen literatura sortzen duenean, ba omen du bere barne-mundu, ardura eta minei begiratzeko joera, eta hasierako eleberrietan (*Odol mamituak* adibide) bizipen propioak islatzen dituela dioen arren, ibilbide nobelistikoan aurrera egin ahala bizipen propio horietatik urruntzen joan ei da.

Hala eta guztiz ere, Alaine Agirrek ez du idaztearren idazten, ezta edozein gairi buruz idazten ere (Martin Rodrigo, 2017). Gorabehera emozionalak gai nagusi baditu ere, bermeotarraren gai erreperitorioaren barruan sartzen dira amatasuna, sexualitatea edo indarkeria anitzak (sexu-abusuak edo indarkeria obstetrikoa, besteak beste). Agirreren hitzetan, bere literaturak “alfonbrak altxa ditzake” (Gabaldon, 2021). Ez da modu intentzionaletan egiten duen zerbait: isildutakora, ilunera, itzalpekorra jotzeko joera du. Gaiak bera aukeratzen duela dio; hunkitzen, liluratzen,

maitemintzen edo obsesionatzen duen horri buruz idazten duela: “Beharbada, baten batek pentsatuko du zergatik aukeratzen ditudan horrelako gaiak idazteko, baina bizitzak min ematen du, eta literatura min hori jasotzen du; literatura mota horretan sinesten dut nik” (Garate, 2018). Hori da, hain justu, osasun mentalaren gai mardularekin egiten duena Alaine Agirrek: bere bizipenetan oinarritutako diskurtsoa sortu eta baita gaiari buruzko dibulgazio lanak egin ere, osasun mentalarekiko garaipen errelato horiek gaindi, haren itzal eta gordintasunak erakutsiz.

Artikulu honen helburua izango da Alaine Agirre Garmendiaren eleberrigintzan osasun mentalak hartzen duen leku eta diskurtsoa ikertzea. Horretarako, haren obretako diskurtsoa analizatu ez ezik, askotariko hedabideei emandako elkarrizketak ere aintzat hartuko dira, idatzitako horren eta bizitakoaren arteko paralelismoak identifikatzeko eta autorearen bizi esperientziek errelatoan izan duten pisuari buruz ere gogoeta egiteko.

3. Ikerketaren muina

Agirreren literaturaren oinarri sendoenetako bat osasun mentala da. Zaila da aurkitzea gorabehera emozionaleri buruz hitz egiten ez duen eleberririk, corpora osatzen duten obra guztiek modu zuzenean edo zeharkakoan jorratzen baitute aipatutako gaia: *Odol mamituak* (2014) lanean protagonistaren eritasun mentala eta horren aurreko tratamenduari buruz egiten da hitz; *X hil da* (2015) eleberrian heriotza batek sor dezakeen zurrunbiloan barneratuta dagoen emakume baten bizipenak kontatzen dira; *Bi aldiz erditu zinen nitaz, amak* (2017) autorearen gaixoaldi mentala eta haren inguruan nolako eragina duen du mintzagai; eta *Karenak* (2021) ama izan nahi eta ezin duen emakume bat irudikatzen du. Arestian aipatu legez, eleberri batzuek bete-betean dute ondoez mentala mintzagai; beste batzuek, aldiz, beste gai bat badute ere kontagai nagusi, gai horrek osasun mentalarekin intersekzioaren bat edo beste azalduko du. Gauzak horrela, datozen lerroek, bereziki, *Odol mamituak* eta *Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama* eleberriak aztertuko dituzte.

Kolektibizatzeke, gutasunetik idazteko, joera nabaria da Agirreren literaturan: “Paziente guztiek, edo ia guztiek, oheari lotuta edo depresioagatik itsatsita ez daudenek bederen, jangelan jaten dute. Jaten dugu” (Agirre, 2014, 77. or.); “Gosaria eta hamaiketakoa, bazkaria, bazkalosteko kafea (deskafeinatua) gailetekin, afaria eta afalosteko kafea (deskafeinatua) hartzen dute hemen pazienteek. Dugu” (Agirre, 2014, 77. or.). Alegia, hasiera batean gaixotasun mentalak pairatzen dituzten pertsonak distantzia batetik interpelatzen baditu ere, aitorpen ariketa bat egin eta protagonistak bere burua ere pareko egoeran kokatzen du. EITBko Ur Handitan saiorako (2017) emandako elkarrizketan zera esan zuen: “Psikiatrikoak kotxe zaharrentzako aparkaleku direla sentitu dot besteek gu ez ikusteko. Guk zuek ez molestatzeko” (Ur handitan, 2017). Agirrek aipatzen dituen kotxe zahar horiek, inork nahi ez dituen kotxe zahar horiek psikiatrikoetan dauden eta, ondorioz, ondoez mentalak pairatzen dituzten pertsonak lirateke. Errekonozimendu ariketa batean, Agirrek buruko gaixotasunak bizi dituzten pertsonen gizartean sor dezaketen deserosotasuna erakusten du, psikiatrikoak pertsona horiek gizartetik ezkutatzeke instituzioak direla aitortuz, betiere bere bizipen eta esperientzian oinarrituta. Izan ere, Agirre bera izan da kotxe zahar horietako bat. 2017ko urriaren 24an aireratu zen EITBko Ur Handitan saioa *Klak* izeneko atalean (2017), Alaine Agirrek bere gaixotasunari buruzko xehetasunak partekatzen ditu: “Lehenengo diagnostikoa izan zan ansiedadie, depresioe, bulimia nerbiosa, insomnio, psikosia, trastorno obsesibo-kompulsiboa, eskizofrenia, momentu baten mania bat. Orain badakit zer dakoten: Talapekue¹ nai. (...) TLP dakotelako. Trastorno Límite de la Personalidad. (...) Borderline esaten dana, inestabilidade emozionala”².

¹ Talape diorean, Alaine bere herriko gune baten izenarekin eta berari egindako diagnosiaren letrekin jolasten du. Izan ere, Tala deitzen zaio Bermeo herriaren goiko aldean, labar baten parean, dagoen guneari.

² Testuko aipua jatorrizko euskalkian mantentzea erabaki da, hitzen indar eta gordintasunari eusteko. Hona euskara batuan: “Lehenengo diagnostikoa antsietatea, depresioa, bulimia nerbiosa, insomnioa, psikosia, trastorno obsesibo-kompulsiboa, eskizofrenia, momentu batean mania bat izan ziren. Orain badakit zer

Ur Handitan saiorako emandako elkarrizketaz haraindi, Agirrek eleberrietan inongo taburik gabe egiten du hitz askotariko trastorno, gaitz mental eta egoera zaurgarriei buruz, ia modu dibulгатibo batean. *Odol mamituak* (2014) eleberrian, esaterako, psikosiaren definizioa plazaratzen du: “Psikosia errealitatearekiko ukipen falta dakarren nahasmendua da. Subjektu psikotikoek haluzinazioak, eldarnioak eta pentsamenduaren nahaste arruntak jasan ditzakete – eten bat–. Zuk bezala” (55. or.). Are gehiago, diagnostiko uneak mahaigaineratu ez ezik, horiek sortzeko jatorriari buruzko hausnarketak eta sentipenak ere aipatzen ditu: “Ez dakit zein momentutan apurtu zen nire kristalezko arrainontzia. Ez dakit noiz egin zuen klisk nire munduaren inguruko kristalak, noiz klask” (64. or.). Ur handitan saioan (2017) ere erreferentzia hori erabiltzen du, buruak une batetik bestera eginiko “klak” horrek izan dituen ondorioak azaltzeko. Hain zuzen ere, gaitzen jatorria ere sarri du hausnargai Agirrek (2014) bere literaturan: “Nerabezaroan, -ago izatearen alde, neure buruaren kontrako guda: ikasle abantailatuagoa, alaba onagoa, lagun alaiagoa, neska-lagun ederragoa, argiagoa, azkarragoa, argalagoa... Komunaren aurrean belauniko, atzamarrak ahoan sartuz botaka eginez bukatu nuen arte” (65. or.). Alegia, perfektua izan nahiak aktibatu ei zion, neurri handi batean, gaitz mentaletarantzko bidea. Antzerako ideia adierazten du *Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama* (2017) lanean ere.

Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama (2017) eleberrian belaunaldiz belaunaldi bizitako eta transmititutako trauma eta ondoez mentalez hausnartzeaz gain, horiek aurreko garaietan izandako estigmatz ere jardun da Agirre. Protagonistaren amonak izandako depresioa du hizketagai, baita amaren erdiondoko depresioa eta alabaren gaixoardiarekin batera bigarrenaz aktibatutakoa ere. Emakume izatea eta gaixotasun mentala pairatzea ere uztartzen ditu autoreak: gizonezko pertsonaiek emakumeek bizi dituzten gaixoardien aurreko jarrerak mahaigaineratzen ditu (amaren erditze osteko depresioaren aurrean aitzak emakumearen sentimenduak gutxietsi ez ezik, inongo tratamendu medikoaren beharra ere ukatzen du); bestalde, emakumeek amatasun berriaren aurrean halako tristura sentitzearen ulerkortasun eza. Bada, orde, bereziki emakumeen gaixoardia gurutzatu duen faktore bat: isiltasuna. Alde batetik, maila indibidualen isiltasun behar horrek eragindakoak azaltzen dira (bakartasun sentimendua, ulertua ez sentitzea, mina, ezkutatu beharra, etab.); baina, beste alde batetik, gurasoek euren bizipen edo aurrekariak ere ukatzea problematizatzen da. Esaterako, *Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama* (2017) obran, alabaren gaixoardiaren ondorioz medikuak gurasoak elkarrizketatzen dituenen, hauek familian izandako depresio aurrekariak ukatzen dituzte.

Min emozionalaren kudeaketa ere badu mintzagai. Alde batetik, minarekin pairatzeko moduetako bat bere buruari ebakiak egitea izan zela aitortzen du Agirrek Ur handitan saioan (2017): “Nik biolentzia praktikatu dut nire buruaren kontra, hemen [besoa], adibidez”. Eleberrietan ere baditu pasarte horiek kontagai; *Odol mamituak* (2014), esaterako, hurrengoa jasotzen du: “Aiztoa hartu, eta arrakala bat irekitzen duzu zeure besoa, azalean. Odola dario zauriari. Eta orduan igartzen duzu nola irekitzen den apur bat zure eztarria, nola sartzen den airezko hari bat samatik; nola erretzen dituen birrikak, sutan daudenak, aire mililitro horrek” (Agirre, 2014, 26. or.), edo “Ez dakit zergatik, baina hankak depilatzeke erabiltzen duen kutxilla bat hartzen du haurrak. Ez daki zergatik, baina ezkerreko besoaren mamian jarri eta bultza egiten du. Ez daki zergatik, baina min ziztada hori gozo sentitzen du” (Agirre, 2017, 126. or.). Izan ere, Alaine Agirreren beraren hitzetan, “Batzutan barruan daukazu mina ezin da aguantatu, ezin zara zure gorputz barruan egon. (...). Min fisiko apur bet sentidu behar dozu konpentsateko”³ (Ur handitan, 2017). Finean, gizarteak egun duen isilpeko eta muturreko arazo bati hitzak jartzen dizkio Agirrek. Minarekin pairatzeko tratamendu medikoak, terapiak ere aipatzen ditu (Agirre, 2017), bai eta tratamendu farmakologikoak ere: Ablify, Rivotril eta Noctamid, baita kontsumitu beharreko neurriak eta kantitateak ere (Agirre, 2014).

daukadan: Talapekoa [bere jatorrizko herriari, Bermeori, erreferentzia] naiz, (...) TLP daukadalak. *Trastorno Límite de la Personalidad*, (...). *Borderline* esaten dena, ezegonkortasun emozionala”.

³ Testuko aipua jatorrizko euskalkian mantentzea erabaki da, hitzen indar eta gordintasunari eusteko.

Agirrek gaixotasunok bizitzeko bi plano edo eremu desberdintzen ditu: norbere ingurune soziala (etxea, herria) eta psikiatrikoa, biak ala biak bere azalean bizitakoak. Etxeko testuingurua bereziki *X hil da*, *Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama*, *Kamisoi zuri zetazkoa* eta *Karena* eleberrietan ageri da; psikiatrikokoa, edo bere hitzetan “kotxe zaharrentzako aparkalekua” (Ur handitan, 2017), aldiz, *Odol mamituak*-en eta *Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama*-n. Bertako bizipenak ez ezik, berarekiko hartu zituzten neurriak ere izendatzen ditu Agirrek: eskuak ohe ertzeko barandara lotuak izatea, kableak edo kordel itxura edo izaera duen edozer ezin edukitzea, kontrola, leihoak hamabost zentimetro baino gehiago ezin zabaldu izatea prebentzio neurri gisa... (Agirre, 2014). Bere esanetan: “Nortasuna galtzen sentitu nuen. Ospitale psikiatrikoetan, ahaztu egiten zara nor zaren, ahaztu zer izan zinen eta, batez ere, zer izango zaren” (Sarasola, 2017). Eri mental eta emozionalei buruzko hausnarketarako gune da, zalantzarik gabe eta bereziki, *Odol mamituak* eleberria. Hala eta guztiz ere, norbere egitatea kolokan jarri zuen gune bera sorkuntza-tenplu bilakatu zen Alaine Agirre Garmendia idazlearentzat, eta bertan bizitakoak kontatzeaz gain, euskarriak, eleberriak eurak, bertan sortu zituen, bai eta sariak jasotzeko edo aurkezpenak egiteko joan-etorriak bertatik abiatu ere (Martin Rodrigo, 2017): psikiatrikoa bihurtu zen Alaineren sormenaren egoitza epe batez.

Azkenik, suizidioa ere lantzen du, bera egoera horretan egon dela onartuz, eta “intimoa izan arren, mundu mailako gerra dela suizidioa” esanez (X-Hiruhortza-X, 2022). Finean, Agirrek berak bizitako prozesu desberdinak laburbiltzen ditu *Odol mamituak* eleberrian, hiru aukera posible azalduz, eromena, tratamendu medikoa eta norbere buruarekiko biolentzia: “Eromena norberaren baitako mehatxua denean, hiru aukera baino ez daude: edo bertan disolbatu, barne-ekaitzean galduz; edo ahal bestean igeri egin, etsipenaren zurrumbiloan ez itotzeko; edo bidea zabaldu ihes egin dezan, adibidez, zainak ebakita” (Agirre, 2014, 11. or.). Gogorra eta gordina da bere diskurtsoa.

4. Ondorioak

Alaine Agirre Garmendiak aldarrikapenean oinarritutako literatura eta, kasu honi dagokionez, eleberrigintza egiten duen zalantzarik ez dago. Osasun mentala du gai nagusi argitaratu dituen eleberri guztietan: *Odol mamituak* eta *Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama* lanetan gai zentrala den arren, *X hil da* eta *Karena* eleberrietan kontakizunean gako diren beste gertakari batzuen inguruan kokatzen du eri mentalen zioa, hil berri den bikotekidearekiko harremanaren eta jaio aurretiko hau baten galeraren inguruan, hurrenez hurren.

Aztergai dugun autoreak gaixotasun mental anitzen bueltako gai-kaleidoskopio bat eratzen du; alegia, gai mardul hau azal-azaletik lantzetik ihesi, eritasunaren inguruko ezaugarri guztiengan jartzen du arreta, bai eta haien arteko loturak egin ere. Modu kaleidoskopikoan diot, elementuak hor egon arren, bereziki bi eleberritan *Odol Mamituak*en eta *Bi aldiz zara nitaz, aman* desberdin aurkezten baititu ardatzak: gaixotasun eta transtorno mentalen estigmarekin apurtu nahian hirugarren pertsonatik (hura edo haiek) lehenengorako jauzia (ni edo gu), askotariko trastornoei buruzko azalpenezko jarduna, min emozionala kudeatzeko metodo normalizatuenetik (negarra, isolamendua) gordin eta muturrekoenetara (autolesioak eta suizidioa), edota gaixotasuna bizitzeko existitu daitezkeen esparruak (izan norbere ingurune soziala zein geografikoa edo instituzioa, ospitale psikiatrikoa).

Alaine Agirrek, berak, ez du autofikzioan kokatzen bere literatura, nahiz eta bete-betean erantzun ezaugarriai: autorearen eta pertsonaia nagusiaren arteko paralelismoak, autorearen eta pertsonaia nagusiaren ahotsak bateratzea, eta errealitatearen eta fikzioaren arteko balantza sortzea, besteak beste. Agirreren esanetan, berak fikzionatu egiten du, baina badago autobiografia puntu bat (Ttap, 2023). Alaineren bizitzaren eta diskurtsoaren artean koherentzia dago; bada idazten eta bizi (izan) duenaren artean zerikusirik (Booktegi, 2023).

Bada *Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama* (2017) eleberriaren bukaeran oso esanguratsua den pasarte bat, protagonistak bere errealitatea, bizipenak edota inpresioak partekatzeko unean jasotako erantzunak aipatzen dituen atala:

W doktoreak eta nire gurasoek eta lagunen batek esaten didate ez idazteko nire gaixotasunaz, ez idazteko nitaz, ez izateko hain gardenen. Uzteko mamuak atzean, odol mamituak barruan, obsesioak buruan, ahanzteko samina. Baina ez dira konturatzen narratzaile hau erailtzen ez dudanez ezin izango dudala beste zerbaiti buruz idatzi. (168. or.)

Ondo baino hobeto laburtzen du pasarteak gizarteak eritasun mentalen aurrean hartzen duen jarrera. Bitartean, ordea, Alaine Agirre Garmendiak aitortza ariketa horretan, zaurgarritasunaren epizentrotik idazten jarraituko duela dio, bere burua paisaia literarioari gisa horretan aurkezten, gizartearen begietara deserosoak izan daitezkeen errealitateak euskal literaturara ekartzen, errealitate horiek existitzen baitira.

5. Etorkizunerako planteatutako norabidea

Lan honen dimentsioa tarteko, Alaine Agirre Garmendia euskal idazlearen literaturak azterketa sakonagoa behar luke. Hain zuzen ere, eta osasun mentalaren gaiari jarraiki, *mad studies* korrontearen ildo nagusiak literatura honetan nola ematen diren iker litezke, bai eta autorearen beraren esperientziarekin lotura are sendoagoak egin ere.

Agirrek lantzen duen gai mardulena osasun mentala bada ere, beste askotariko gaiak ere lantzen ditu bere eleberrietan: amatasuna, abortua, sexu-abusuak, bisexualitatea eta lesbianismoa, eta askotariko indarkeria motak – obstetrikoa kasu –. Dena den, gaiak ez dira gai bakan eta solte lez lantzen; guztiak daude neurri txiki edo handiagoan Alaine Agirreren nobeletan txirikordatuta: ezin daiteke amatasunari buruz hitz egin sexuari buruz hitz egin gabe; ezin daiteke amatasunari buruz hitz egin osasun mentala alde batera utzita; ezin daiteke harreman sexualei buruz hitz egin ongizate emozional eta mentala baztertuta. Denak ala denak abiatzen dira gorputzetatik, eta hori izango litzateke Agirreren literatura laburbiltzeko gakoetako bat: gorputzetik eta gorputzentzat idazten du, noziorik natural eta zintzoenetik.

Bizibisexualitatea atariari eskainitako elkarrizketan Agirrek autodeterminatzeko behar eta garrantziaz dihardu (BIZI, 2023). Hala, bere burua euskaldun, neurodibergente eta bisexual lez definitzen du. Etiketen ordenari erreparatuz gero, Alaine Agirre Garmendiaren gizarteratzearen prozesu bera ikus daiteke: hasieran, bere eleberriekin batera, bere ondoez mental eta emozionalei buruz aritu zen, bere ibilbide propioaz hitz eginez eleberri zein elkarrizketetan. Gero, bere burua publikoki bisexual lez aurkezten hasi zen, baita bere eleberrietan emakume lesbiana eta bisexualak txertatzen ere.

Etorkizuneko ikerlerroen artean egongo lirateke (a) lan honek zabalduko ikerketa lerroa garatzea eta osatzea teoria feminista eta *mad studies*-ak baliatuz, (b) Alaine Agirrek bere eleberrietan egiten duen amatasunaren trataera aztertzea, (c) autoreak sexualitatea nola biltzen duen haren nobeletan ikertzea eta (c) gorputzak eta gorputzasunak autorearen idazkietan duen eraginaz hausnartzea. Bestalde, eta Agirreren literatura beste autore batzuen jardunarekin alderatu nahi balitz, ikerketa-lerro posiblea litzateke hark sortutako literatura Kate Milletenarekin lotzea, bai eta autofikzioan fokua jarri nahi izanez gero, Annie Ernauxenarekin uztartzea edo alderatzea ere.

6. Erreferentziak

- Agirre, A. (2014). *Odol mamituak*. Elkar
- Agirre, A. (2015). *X hil da*. Elkar
- Agirre, A. (2017). *Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama*. Elkar
- Agirre, A. (2021). *Karena*. Elkar
- Alvarez Uria, A. (2005). Euskal emakume idazlen lekua literaturaren historian. *Jakin*, 148, 37-75.
- BIZI (2023). *BIZI: Alaine Agirre* [Bideoa]. Youtube.
<https://www.youtube.com/watch?v=wJIDq9t4AJQ>
- Booktegi (2023). *Aaine Agirre* [Bideoa]. Youtube.
<https://www.youtube.com/watch?v=GjmGFt5hj7A>
- Borda, I. (2013). That bombshell called intimacy. 452F°. *Electronic Journal of Theory of Literature and Comparative Literature*, 9, 42-56.
- Gabaldon, V. (2021). Alaine Agirre: 'Sin querer mi literatura va a levantar alfombras'. *Mamagazine* <https://www.mamagazine.es/alaine-agirre/>
- Gabilondo, J. (2016). *Before Babel. A history of Basque literatures*. Barbaroak
- Garate, M. (2018). Saihestu ezin den ezinegona. *Berria*
<https://www.berria.eus/paperekoa/1835/030/001/2018-11-29/saihestu-ezin-den-ezinegona.htm>
- Martín Rodrigo, I. (2017). Alaine Aguirre: 'El Día en que supe que los escritores no eran extraterrestres, quise ser uno de ellos'. *ABC Cultural*
https://www.abc.es/cultura/cultural/abci-alaine-aguirre-supe-escritores-no-eran-extraterrestres-quise-ellos-201704040045_noticia.html
- Mintegi, L. (2014). Emakumea eta literatura kontzeptuaz jirabiraka. *Hegats Literatura Aldizkaria*, 52, 9-26.
- Moi, T. (1988). *Teoría literaria feminista*. Ediciones Cátedra
- Olaziregi, M.J. (2012). Worlds of fiction: an introduction to Basque narrative. *Basque Literary History*, Center of Basque Studies. University of Reno, Nevada
- Rodriguez, E. (2019). *Idazleen gorputzak. Egiletasuna ezbaian literaturaren joko zelaian*. Susa
- Sarasola, A. (2017). Nortasunari eusteko hitzak. *Berria*
<https://www.berria.eus/paperekoa/1926/030/001/2017-04-07/nortasunari-eusteko-hitza.htm>

Goiena Komunikazio Taldea (2023). Alaine Agirre: 'Nitaz idaztea da zutaz idazteko nire modua' [Bideoa]. Youtube. <https://www.berria.eus/paperekoa/1926/030/001/2017-04-07/nortasunari-eusteko-hitzak.htm>

Ur Handitan (2017). Klak [Bideoa]. EITB. <https://www.eitb.eus/eu/nahieran/saioak/ur-handitan/klak/osoa/5916/136874/>

X-Hiruhortza-X (2022). Hitz egin dezagun suizidioaz lehen pertsonan, pluralean. Ni egon naiz hor, denok egon gaitezke hor [Irratsaioa]. EITB. <https://www.eitb.eus/eu/irratia/euskadi-irratia/programak/faktoria/audioak/osoa/8834537/audioa-alaine-agirre-hitz-egin-dezagun-suizidioaz-lehen-pertsonan-ni-egon-naiz-hor-denok-egon-gaitezke-hor/>